99/8/29



# Larcade: «Gure helburua ez da telebista aldatzea»

*'Telebisoretik telebistara' mintegia zuzentzen ari da Artelekun*

Amagoia Iban / Donostia

**Miarritzen jaioa, Bordelen eta Grenoblen burutu zituen Arte Ederretako eta Komisariotza ikasketak; egun, Bilbon bizi da. Artelekun, *Telebisoretik telebistara* mintegia zuzentzen dabil, Alexis Vaillant arte historialari eta kritikariarekin batera. Joan den asteazkenean hasi zen mintegia, irailaren 17an amaituko da, eta bertan telebistaren eta artearen arteko mugak zehaztea dute helburu.**

LAU ASTE iraungo du Artelekun egiten ari diren *Telebisoretik telebistara* mintegiak, eta bertan hamar lagun ari dira lanean. Larcade eta Vaillantekin batera. Horien artean bat euskal herritarra, hiru Espainiatik etorriak, hiru frantses, bi ingeles eta marokoar bat daude. Zazpi artista gonbidaturekin ariko dira, gainera, elkarlanean, helburu nagusi baten lortzeko. Franck Larcade miarriztarraren aburuz: «Artista garaikideak irudian oso interesatuak daudela badakigu, batez ere zineman eta, gero eta gehiago, telebistan. Telebistarekin hazi garen belaunaldikook zinema kultura ere telebistatik jaso dugu hein handi batean. Hori izan da gure abiapuntu lehena».

Behin hori abiapuntutzat hartuta, artearen ohiko eremuak —galeria edota museoak— gainditu eta telebistan txertatu nahi dute euren lana, oso hedapen egitura garrantzitsua izaki: «Galeria aldez aurretik babesturiko toki bat da, zeinetan artistak gizarte kapitalistak eskatzen diona egiten baitu: dekorazio objektuen ekoizpena. Telebistarekin, orain arte ezagutu izan ez ditugun aukerak ditugu egun». Katean ugaiketa, sarrera libreko telebisten kontzeptua, telebistaren lurraldea zein den pentsatzeko aukera... Hamaika gauza dago oraindik jorratzeko, Larcaderen ustez.

## Telebista, merkatu irizpideak eta artista

Merkatu irizpideak nagusi dituzten telebisten munduan honelako kontzeptuak eta eztabaidak nola txertatu da kontua Larcaderen iritziz: «Espazioa saldu egiten dute telebistek. Nola txertatu orduan artista bat logika horretan? Hor garatu behar du artista bakoitzak bere estrategia, artista izaten jarraitzeko asmoz, noski, baina hartzaile gehiago izateko ere bai. Telebista ez da gure bila etorriko, jakina, baina egia da sona lortzeko interesgarri gerta daitekeela, zabaltasunaren adierazgarri moduan»,

Beraz, artistak lan egiten jakin behar dugu: «Aipatzen dudan prozesuak ez du helburu bakartzat lan jakin bat ekoitzi eta hedatzea; negoziazio bat ere eskatzen du telebista arduradunekin. Negoziaketa prozesu batean, telebista pribatuek erabiltzen dituzten arma ekonomikoek termino ekonomikoetan pentsatzeko beta besterik ez digute ematen, eta horren araberako estrategiak antolatu behar ditugu. Esaterako, telebista espazioak eros daitezke. Balio trukean oinarrituriko negoziaketa litzateke betiere».

Telebista publikoen kasuan, bestela izan behar luke, Larcaderen ustez, «nahiz eta telebista publikoak ere merkatu jokoan sartzen direna badakigun. Jokoan dagoena, telebistan oro har parte hartzea da, negoziaketa baten bitartez. Guk zera nahi dugu: analisi baten ondorioz, arte ideia bat telebistaren testuinguruan nola bizi daitekeen aztertu. Gure helburua ez da telebista aldatzea».



Franck Larcade. PABLO S. QUIZA

## Euskal Telebistarekin hitzarmena

EUSKAL TELEBISTAREKIN «kolaborazio hitzarmen tankerako zerbait» daukatela dio Franc Larcadek. Hitzarmen horren arabera, mintegian sor daitezkeen zenbait proiektu gauza omen daitezke, «telebistan eta telebistatik, ekoizpenetik hasi eta hedapeneraino».

Hitzarmen horren nondik norakoen berri galdetu diogu, eta, hasteko, ETBk solaskide bat jar ziezalen nahi zutela azaldu digu, «eta lortu dugu, baina ezin da esan nor den. Pertsona horrek beste lagun batzuekin harremanetan jar gaitzake. Ez genuen nahi zenbat denbora uzten ziguteneko eztabaidetan sartzea. Azken finean, erakusketa bat egitekotan museora joan eta ea zure lanetarako zenbat leku uzten dizuten galdetzea bezala litzatekeelako».

Hitzarmen horren ondorioetako bat izan daiteke Artelekun egiten ari diren mintegian sor daitezkeen ideia eta proiektuak gauzatzeko ETBren azpiegitura izatea. «Gure asmoa da hemen sorturiko ideiak eta proiektuak telebistan gauzatzea».




IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN !!

IZEN - ABIZENAK ____

HELBIDEA ____

P.K. ____ HERRIA ____ TELEFONOA ____

KONTU KORRONTEA: ENTITATEA ____ N.A.N. ____

K.D. ____ KONTU ZENBAKIA ____ BULEGOA ____

## Antzinako musika jorratuko dute Lizarrako Astean

*Erdi Aroa, Barrokoa eta Johann Sebastian Bach izanen dira hitzaldien ardatz*

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAN Antzinako Musikaren inguruko astea eginen dute irailaren 7tik 12ra bitartean, eta, sarrera moduan, Manuel Horno musikologoak lau hitzaldi emanen ditu bihartik ostegunera bitartean. Lizarrako Fray Diego kultur etxean izanen dira hitzaldiok; 20:00etan hasiko dira [...] Berpizkunderainoko musikaren ibilbidea aztertuko du musikologoak.

Etzi, bigarren hitzaldia izanen da, eta Barroko garaiko Espainiako musikaren inguruan mintzatuko da Horno. Orphenica Lyra eta Peñaflorida Kaperak emanen dituzten kontzertuetan izanen du musikologoak eredu.

Asteazkenean, Barroko [...] Hornok; bertan, Concerto Italiano taldeak eskainiko duen kontzertua aurkeztuko du. Concerto Italianok Barroko garaiko harizko tresnetarako egindako eredu adierazgarrienak azalduko ditu Lizarran.

Horno musikologoaren laugarren eta azkenengo hitzaldiak Bachen musika-